

Organikoa, konpostagailura



Berako herritar hori,

Bortzirateko Mankomunitateak, Europako eta Nafarroako helburuak eta legedia bete ahal izateko, hondakindegira zuzenduriko hondakinen sorrera gutxitzeko beharra dauka, eta aldi berean, 2020rako gai organikoaren %50-a bereizirik jasotzekoa.

Helburu hauetara heltzeko, gaur egungo bilketa eta tratamendu sisteman aldaketa sakon bat egin beharra dago. Hori dela eta Mankomunitateak informazio bilera batzuk antolatu ditu aldaketa honen nondik norakoak jakinarazteko eta biztanleon bete beharrak azaltzeko.

Oso garrantzitsua da informazio bilera hauetara etortzea zure herrian ezarriko den etxe eta auzo konpostaje bidezko **gai organikoaren kudeaketa sistema berrian parte hartzeko**.

Konpostajeak zabortegeira doan materia organikoaren kopurua murrizten du, hondakinen kopurua gutxitzen laguntzen du eta kalitatezko ongarria lortzeko aukera ematen du.

Ziur gaude honezkero eskualde honetan harrera ona izan duen sistema honek asebeteko zaituela onura nabarmenak baititu. Halere, sistema martxan paratzeko eta ongi joateko zure parte-hartzea beharrezkoa da. Beraz, kanpaina **parte hartzera animatu nahi zaitugu** eta horretarako, zure herrian antolatuko diren **informazio bilkuretan parte hartzera gonbidatzen zaitugu**. Ondoren ikus daitezke datak eta tokiak:

- DATA: Martxoak 31 ORDUA: 12:00 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Martxoak 31 ORDUA: 17:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Martxoak 31 ORDUA: 18:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 1 ORDUA: 11:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 1 ORDUA: 18:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 1 ORDUA: 19:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 14 ORDUA: 12:00 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 14 ORDUA: 17:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 14 ORDUA: 18:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 15 ORDUA: 11:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 15 ORDUA: 18:30 LEKUA: Beralandeta
- DATA: Apirilak 15 ORDUA: 19:30 LEKUA: Beralandeta

* Hizkuntzarik jarri ez den kasuetan hitzaldiaren hasieran aipatuko da eta denen artean adostuko da hitzaldiaren hizkuntza.

Zure ordutegiaren arabera hobekien datorkizun bilkurara etor zaitetzke. Bileran proiektuaren helburuak azalduko dira eta zalantzak argitzeko nahiz iradokizunak azaltzeko aukera ere egongo da.

Interesa baduzu eta ezin bazara etorri, faborez, deitu 608 46 22 97 (*bilkurak eta hitzaldien inguruko informaziorako*) telefonora edo Mankomunitateko telefonora, 948 635 254 edota txomin@biortziriakzabor.com helbide elektronikora idatzi.

Mila esker aitzinetik, eta bilkuran elkar ikusiko dugulakoan, har ezazu gure agurra.

Bortzirateko Mankomunitatea

